



TXILLARDEGI

FILTROAK ETA GORAGALEAK

Banindoan ni Iparraldera joan den igandean, emaztearekin, Hendaia-ko adiskide batzuren etxean bazkaltzera; eta mugan, gutxienik espero nuelarik, aspaldiko esaldi famatua entzun nuen: «pas possible». Urtarrilaren 27.a zen. «Zergatik ez?» galdetu dut:

— Je ne sais pas, Monsieur. Mais on ne peut pas passer.

Eta atzera.

Han ginen euskaldun batzu, harriturik, nardaturik:

— Gure semea Bordalera doa bihar, eta okela eta beste gauzatxo batzu eraman nahi genizkion. Eta horra! Eta ez da hori okerrenea: beste bi seme-alaba ditugu, eta beste biok ere etxetik aldeginik daude!...

«Opération filtre»... Leuna hitza, baina garratza esangura. Esangura hau baita: euskaldunok ez dugula geure aberriaren barruan ere librokiko mogitzeko eskubidea. Iruna joan gaitzke, baina Hendaia-ko ez! Segun-eta egunak...

— Badakizu: Baionako presondegian gose-oporrean ari dira ETA p-m-ko batzu, joan den asteazkenaz geroztik; eta, seguru aski, horregatik da debeku hau.

Eta berdin gertatu bide da ondoko astelehenean eta asteartean:

— Je regrette, Monsieur. «Opération filtre» pour éviter des désordres. Veuillez rentrer en Espagne!

Orain mugaondoko herrietako «Bixintxoak» izanik, harri-garriago erabaki hau; eta aldrebesago ere bai. Irungo alkatea bera omen dago «refoulé» horien artean; nahiz oso ofizialki, eta «Bixintxoak» direla-ta, Hendaia-ra joan behar zuela erranik ere.

Eta galdera hauxe da: ZER DA HAU GUZTIA? Nork sinesten du gaur, batez ere oraingo legetasun hau ontzat ematen dutenen artean, Franco-ren garaian bezala, Bidasoaz bestaldera joatea, egunen arauera, pasaporte izanagatik ere, debekaturik dagoela? Azken hilabete hauetan hiru aldiz gertatu zait «filtre» delakoak aurkitzea, eta atzera egin behar izatea. Nork salatu du jokabide hori? Nork salatu du, oso bereziki, abertzale izena daramaten indar horien artean, EUSKALDUNON KONTRA behin eta berriz hartzen den jokamolde lotsagarri hori?

Lehen, «fascismo»aren garaian, normaltzat eman zitezkeen gertakari hauek. Baina orain, «autonomia» omen dugun honetan, normala al da euskaldunok, nola gerta, bestaldera pasa ahal izatea edo ezin pasatzea?

Eta horrela gorantz doa herri honen nazkaldia. Edo, hobeiki esateko, herri honetako abertzaleen goragalea.

Zeren-eta, «opération filtre» delakoak direla-ta, Euskal Herrian barrena mogitzeko eskubidea ukatzen baitzaigu. Bai. Baina ez hori bakarrik. «Autonomia» zoragarri honen barruan, Nafarroa ez da «Euzkadi», Nafarroa ez da unibertitate-distritoaren parte, eta abar, eta abar; eta, horrez gain, «Ley de Autonomía Universitaria» dela-ta, oraino murriztuago eta ahulago egin nahi baita gure ahalmena. Abertzale jendea, horretara, nazka eginda dago (abertzale ez den jen-

dea, berriz, oso pozik eta irribarrez bizi bada ere). Etsipena, ezintasun-kontzientzia, «frustrazioa», gorantz doaz herri honetan. Eta PNV-aren erretiratzea, giro horretan ulertu behar da. Leporaino daude PNV-koak berak. Gaur ez dago dudarik. Eta abertzale gogorren erizpidea zuzena zela garbi gelditu da.

Ez da hori okerrenea, halere. Zeren-eta hona heldu bagara ere, ez gaituzte hona ekarri indar erradikal famatu horiek. Ez. Mila leunkeriata eta mila traiziotan ibili ondoren, azkenean, deusik ez! «Autodeterminazioari ez» esan ondoren, ezker abertzalea kondenatu ondoren. Nafarroa saldu ondoren... saritzat hau: «filtroak», bonbak tabernetan, eta erdara batua jai-ta-aste.

Areago: «politikoak» gure erremalez nagusiturik, Euskal Herria borrokara eraman duen projektua bera ahanzi da. Inork ez du gaur kemenik, ezta gure artean ere, aitor dezagun, gure projektua zein den esateko. Gaizki ari naiz, pertsona **bat eta bakar** bat baitago: Telesforo Montzon.

Hots, gure projektua, abertzaleen projektua, hauxe da: EUSKAL HERRIA ERAIKITZEA. Nazio bat eraikitzea; nazio bat, bai. Nazio horren muina eta lokarria, **euskara** izango litzateke (berriro ere, hautagaien zerrendetan ongi ageri denez, zapuztua eta ukatua). Eta eskualde nagusitatzat eta ezinbestezkotzat, Nafarroa; eta Iparraldeko anaiak eta aberkideak inolaz ere ahazten ez ditugularik. Horra hor abertzaleen projektua. Nor ausartzen da gaur, ordea, gure NAZIO-NAHI hau aurretik eta gaintetik argi eta garbi aitortzen?

Ongi dakigu, eta ederki ikusi da azkeneko hilabeteotan, «abertzale» izeneko indar batzuk NAZIO-PROJEKTU horri uko egiten diotela; eta beren klase-interesik nabarmenenak defenditzen dituztela edozeren gaintetik, nahiz ikurrine jantzirik. Ongi dakigu nazio-projektua ezin daitekeela proposa ere LAN egiten duten horien aberri gisa baizik. Ongi dakigu nor dagoen NAZIO-PROJEKTU horren alde, eta nor ez.

Baina projektua hori da, eta ez besterik: EUSKAL HERRIA NAZIOTASUNEAN ETA EUSKALDUNTASUNEAN ERAIKITZEA.

Jakina: azken urte hauetako ziztrinkeriak ikusita, azken urte hauetako saldukariak eta lotsagarrikeriak ikusita, eta «aberria» hitza maizegi erabiltzen duten horiengan eta inguruan ikusita, projektua bera zapuzten dute gaur askok, gero eta gehiagok agian; eta abertzaleen artean PROJEKTUA BERA agertzen zaigu gaur koloka. «Filtroak», bortxaketak, eta tabernetako bonbak ordea, hor daude; eta beroien helburua ongi agertzen da. ETSIAIAK SINESTEN DU GURE PROJEKTUAN, BAINA GUK EZ.

Garaia da, beraz, etsaiaren probokazioak eta gure arteko batzuen kirtenkeriak alde batera utzita, zentzuz eta kemenez batera, gure asmoa agertzeko; eta asmo horren arauerako jokabideak hartzeko.

Eta asmo horiek, berriro ere, hitz labur hauetara bil daitezke: EUSKAL NAZIOAREN ERAIKIERA. ■